




# 2003ko programazio artistikoa



## BILDUMA IRAUNKORRA



### FITXA TEKNIKOA

Izenburua: *Gardentasunak*  
Komisarioa: Petra Joos  
Datak: 2003ko martxo-maiatza  
Aretoa: 103

### AURKEZPENAREN EDUKIA

Argia da erakusketa honen protagonista nagusia eta Euskal Herriko eta Espainiako artearen oraingo panoraman nabarmendu diren sortzaileen obraren osagaia. Javier Pérez, Cristina Iglesias, Susana Solano eta Juan Luis Morazak, Guggenheim Bilbao Museorekin Berezko Bilduma egituratzen duten ardatz nagusietako bat ordezkatzeko artistek alegia, ikusgai jarriko dituzte beren lanak 103 aretoan, 2003ko udaberrian.


Javier Pérezek, *Levitas* (1998) lanaren erabateko arintasunaren bitartez gizakiaren presentzia erakutsiko digu kristalezko esferetan sartuta dauden arrasto misterioetsuetan irudikatuta, bizitzaren ezegonkortasuna eta hauskortasuna aditzera emanez.

Cristina Iglesiasen *Titulurik gabea (Alabastrozko gela)* [*Sin título (Habitación de alabastro)*, 1993] lana espazioak, argiak eta materialek osatutakoa da. Osagai horiek multzoari itxura eta zentzua ematen diote, materialen nolaketan fisikoak agerian utziz eta obraren egiturak eta formak duten konplexutasuna nabarmenduz. *Titulurik gabea (Sareta II)* [*Sin título (Celosía II)*] 1997ko obrak itxura exotikoa duen gela antzeko bat da, eta gune batzuetan itxita dagoela ematen duen arren barrura sartzen uzten du argia. Obra honek sareta arabiarrak gogorarazten dizkigu eta bertan, bere obra ugaritan bezala, artistak itxuraz kontrakoak diren edukiak bat egitea lortzen du, aldi berean babesleku eta kartzela den gela bat aurkeztuz.

*Jaosokor* Susana Solanok 1997an sortutako obra da, eta bertan tamaina bereko plastiko zati handi koloregabeek eta gardenek sendotasun itxura faltsua sorrarazten dute, aldi berean aparraren, uraren eta eguzki argiaren nolaketan batzuk gogorarazten dizkiguten bitartean. Indonesiara egin zuen bidaiaren batean inspiratutako obra honetan, artistak bere artea munduarekin erlazionatzeko premia adierazten digu.

103 aretoan, Juan Luis Morazak *Estasia, estatua, estatua (Éxtasis, status, estatua)*, 1994) obra erakutsiko digu. Bertan, erretxinaz eginda eta era ordenatu batean ilaran jarrita dauden zapata-takoi ugari geldiaraziko diguten saturazio efektua sortu eta emakume-plazera irudikatuko dute. Obrak agerian uzten du Morazak formarekiko duen interesa, maila bateraino egunerokotasunari lotua, baita objektuaren muga aurrean sentitzen duen kezka ere, gai transzendenteagoak adierazten saiatuz.

## BILDUMA IRAUNKORRA



### FITXA TEKNIKOA

Izenburua: *Antonio Saura*  
Komisarioa: Petra Joos  
Data: 2003ko uztaila-2004  
Aretoa: 103

### AURKEZPENAREN EDUKIA

Aurkezpen honetan lehen aldiz eta dagokion testuinguru artistikoaren barruan, Guggenheim Bilbao Museoak duela gutxi eskuratutako Antoni Sauraren obrak jarriko dira ikusgai. Obra horiek informalismo espainolaren beste protagonista batzuenarekin batera aurkeztuko dira, baita Iparramerikako espresionismo abstraktuaren ordezkari batzuenen ondoan ere.



1930ean Huescan jaioa, Antonio Saura Madril, Valentzia eta Bartzelonan bizi izan zen bere familiarekin. Oso gaztetandik aitarekin batera joan ohi zen Prado Museora, eta bertan erabat hunkituta geratu zen Diego de Velázquezen *Kristo gurutziltzatua (Cristo crucificado, 1632)* eta Francisco de Goyaren *Erdi ondoratutako txakurra (Perro semihundido, 1821/23)* pinturen aurrean. Izan ere, eragin berezia izan zuten etorkizunean sortuko zituen obren gaitan. Autodidakta, 1947an hasi zen pintatzen eta idazten, denbora luzez gaixo egon zen bitartean. 1948 eta 1950 urte bitartean *Konstelazioak (Constelaciones)* seriea egin zuen. Bertan, agerian geratzen da 30eko eta 40ko hamarkadetan Miró sortutako pinturaren eragina, baita André Bretonen inguruan bildutako talde surrealisten ikusmolde artistikoarena ere. 1953 eta 1955 urte bitartean Parisen bizi izan zen eta hasiera batean Breton buru zeneko talde surrealisten jardueretan parte hartu ondoren, informalismo frantsesa, alegia *art autre*, eta pintura iparramerikarra ezagutu zituen.

1957an El Paso taldea eratu zuen Madrilan, eta bertako buru izan zen 1960an desegin zen arte. Taldearen manifestuan Espainian pinturaren eremuan hizkuntza berri bat sortzeko nahia adierazi zuten, hain zuzen ere Europako garaiko abangoardien testuinguruan kokatuta. Urte haietan garatu zen informalismo espainola, El Paso taldeaz kanpo, Kataluniako Dau al Set taldeko artista gehienek parte hartu zuteneko mugimendua, Antoni Tàpies izanik irudi nabarmena.

Museoak eskuratutako Antonio Sauraren *Gurutziltzaketa (Crucifixión)* eta *Karl Johann II* pinturek; dohaintzan jasotako paper gaineko *24 buru (24 cabezas)* eta *Goya-ren alegiazko erretratua (Retrato imaginario de Goya)* lanekin batera, gaiari dagokionez oso multzo adierazgarria osatzen dute artistaren ibilbidean. Artistaren sorkuntzaren aldi desberdinak biltzen dituzten lan horien aurkezpena New Yorkeko Solomon R. Guggenheim-en Bildumako bi obrekin osatuko da, Antoni Sauraren obraren ikuspegi zehatzagoa eskaintzearen.

Sauraren obra informalismo espainolaren protagonista izandako beste batzuenarekin batera aurkeztuko da, adibidez Antoni Tàpiesenarekin, baita Guggenheim Bilbao Museoaren Berezko Bilduman zabal ordezkaturako Iparramerikako espresionismo abstraktuaren ordezkari diren Mark Rothko, Willem de Kooning, Clyfford Still edo Robert Motherwellen lanekin ere.

## BILDUMA IRAUNKORRA



### FITXA TEKNIKOA

Izenburua:	<i>Irdiak mugimenduan</i>
Komisarioak:	Lisa Dennison eta Nancy Spector
Egoitzak:	Solomon R. Guggenheim Museum, New York; Guggenheim Bilbao Museoa
Datak:	2003ko urria-2004ko apirila
Aretoak:	105, 301, 302, 303, 305, 306 eta 307

### AURKEZPENAREN EDUKIA

*Irdiak mugimenduan* erakusketan sormenaren euskarri eta adierazpide gisa argazkia, zinema eta bideoa erabiltzen duten 55 artista garaikideren 150 obra inguru bilduko dira.


Erakusketak azkeneko hamarkadako artean antzematen ari den baliabide erreproduzigarrien gero eta erabilera handiagoa du xedetzat eta joera horren aurrekariak 60ko hamarkadaren bukaerako eta hirurogeita hamarreko hamarkadako artean bilatu behar direla proposatzen du. Izan ere, aldi hartan artistek oinarri kontzeptualeko beren praktikan argazkia eta mugimenduzko irudia barneratu baitzituzten. Erakusketan artista garaikide gailenen obrak ikusi ahal izango ditugu, esate baterako honako hauenak: Christian Boltanski, Rineke Dijkstra, Stan Douglas, Olafur Eliasson, Fischli/Weiss, Anna Gaskell, Andreas Gursky, Pierre Huyghe, William Kentridge, Inigo Manglano-Ovalle, Gabriel Orozco, Cindy Sherman, Thomas Struth, Sam Taylor-Wood, Wolfgang Tillmans, eta Kara Walker, baita adierazpide horien aitzindari izandako batzuen lanak ere, adibidez Marina Abramovicenak.

Azken hiru hamarkadetan, artistek beren praktika kontzeptualak eratzeko tresna gisa erabiltzen dituzte argazkia, zinema eta bideoa. *Performanceak* edo ekintza iragankorrak grabatzeko nahiz errealtate berriak sortzeko, artista horiek baliabide erreproduzigarriak erabiltzen aritu dira arte-forma nagusi gisa. Ekintza dokumental bihurtzeko hasierako bulkada hori saihestuz, guztiek mundu enpirikoaren inguruko adierazpenak manipulatu edo erabat berria den kosmologia asmatu dute. Artista batzuek zuzenean ingurunean esku hartzea erabaki dute, aurkitutako munduaren osagaiak sotiltasunez aldatuz. Beste batzuek, berriz, fikziozko inguruneak fabrikatu dituzte, kamera baten lenteak jaso ditzan. Erakusketa hau Guggenheim Museoen Bilduma Iraunkorreko fondoez hornitu da, eta azken hamar urteotan halako praktikek duten presentziari buruzko gogoeta izan nahi du.

## BILDUMA IRAUNKORRA



FITXA TEKNIKOA



Izenburua: *Jean Dubuffet*  
Komisarioa: Lisa Dennison  
Datak: 2003ko azaroa-2004  
Aretoak: Bigarren solairua

### AURKEZPENAREN EDUKIA



Jean Dubuffeten lan ugari aurkeztuz, Guggenheim Bilbao Museoak bere helburua bete nahian jarraitzen du, alegia Bilduma Iraunkorrean bilduta dituen XX. mendeko artearen fondoak kronologikoki erakusteko. Ibilbide historiko horri 2001ean ekin zion *Thannhauser Bildumaren aukerak* erakusketarekin, inpresionismo, postinpresionismo eta lehenengo abangoardietako maisulanak erakustearren. 2002an, ibilbideak abstrakzioaren aitzindarietako baten lanak aurkeztuz jarraitu zuen, *Kandinsky bere testuinguruan* erakusketaren bidez. *Jean Dubuffet* erakusketak errepaso historiko honi jarraitzen dio 2003an, artista frantses horren lan-sorta handi bat aurkeztuz, kontuan hartuz informalismoaren ordezkari gailenetako bat dela, II. Mundu Gerraren ondoren Europan sortu zen mugimenduetako batena, alegia.

1901ean Le Havren, Frantzia jaioa, Dubuffetek Parisen ikasi zuen artea nerabe zela. Bertan Raoul Dufy, Max Jacob, Fernand Léger eta Suzanne Valadon ezagutu zituen eta liluratuta geratu zen adimen-gaixotasunak zituzten pertsonen arteari buruz Hans Prinzhornek idatzitako liburuarekin. Italian eta Hegoamerikan zehar ibili ondoren, hasiera batean industri delinetaizale gisa aritu zen lanean eta ondoren familiak zuen negozioan, artearen mundua aldi baterako utziz.

1942an erabaki zuen Dubuffetek artearen sorkuntzan behin betiko jardutea. Hamarkada horren hasieran André Breton, Georges Limbour, Jean Paulhan eta Charles Rattonekin elkartu zen, eta aldi hartako bere estiloan eta gaietan Paul Kleearen obraren erabateko eragina jaso zuela antzematen da. 1945az geroztik *Art Brut* biltzeari ekin zion, autodidaktak ziren egileek, zenbait kasutan adimen-gaixotasunen bat zutenek bat-batean sortutako obrak.

Dubuffeten pinturaren estiloa, artistak berak *Art Brut* mugimenduaren barruan sailkatu zuena, Frantziako artearen tradizioan pintore batengan espero zen guztiaren kontrakoa zen eta erabateko desafioa planteatu zien ezarritako balio artistikoei. *Graffiti*an eta adimen-gaixotasunak zituzten pertsonen sortutako artean inspiratuta, Dubuffetek behin eta berriro adierazi zuen bere lanak zalantzan jartzen zuela "grekoek ondare gisa utzitako eta aldizkarietako azalek sustatutako" edertasunaren ideia engainagarria. "Antzinako" kulturetako artea miresten zuen, baita prestakuntzarik ez zuten artistena ere. Horrez gain, Dubuffetek izugarriko interesa erakutsi ohi zuen aurkitutako objektu eta material ugari eta anitzen aurrean. Garai hartako mendebaldeko ikusmolde artistikoak gutxietsitako baloreak eta materialak birgaitzeko asmotan, Dubuffeti gehien interesatzen zitzaiona hauxe zen, aske utzitako energia espontaneo eta benetakoa, eta horrekin batera mendekotasuna ukatzea eta desafioa aldarrikatzea.

## ALDI BATERAKO ERAKUSKETA



### FITXA TEKNIKOA

Izenburua: *Jasper Johnsetik Jeff Koonsera: Broad bildumen artearen lau hamarkada*  
Komisarioa: Lisa Dennison  
Egoitzak: Los Angeles County Museum of Art; Corcoran Gallery of Art; Washington, D.C.;  
Museum of Fine Arts, Boston; Guggenheim Bilbao Museoa  
Datak: Otsailaren 15a-irailaren 7a  
Aretoak: 105, 301, 302, 303, 304, 305, 306, 307.

### AURKEZPENAREN EDUKIA

*Jasper Johnsetik Jeff Koonsera: Broad bildumen artearen lau hamarkada* erakusketa eskala handiko aurkezpena da, Eli eta Edythe Broad filantropo kaliforniarrek, artista entzutetsuen nahiz sortu berrien bilduma onenetako baten jabeek bildutako artelanez osatua. Eli Broadek hauxe dio artelanak biltzen nola hasi zen aipatzean: "bilduma handiak artea garaikoa den bitartean egiten dira: ezin da atzera egin eta gaur egun inpresionismo eta postinpresionismoko bilduma handi bat sortu".

Eli eta Edythe Broad Los Angelesen bizi dira. 1984an The Broad Art Foundation sortu zuten artelanak erakundeetara uzteko eta horrela eurak osatutako arte garaikideko bildumak publiko zabalago bati ezagutzera emateko. Gaur egun, fundazioaren fondoei eta Broaden fondoei guztira 150 artista baino gehiagok sortutako milatik gora obrak osatzen dute. II. Mundu Gerraren ondoren sortutako estilo artistiko desberdinen adibideekin, Broad bildumak obra adierazgarrietan eta gai sozialak azpimarratzen dituzten piezetan oinarritzen dira.

Erakusketan ikusgai jarritako hogeita hiru artistaren ia 125 lanek Museoaren hirugarren solairua osorik eta lehenengo solairuaren areto bat hartuko dute.

Erakusketak XX. mendearen bigarren erdian sortutako mugimendu artistiko adierazgarrietako batzuk aurkezten ditu, horien artean *Pop Art*, Alemaniako neoespresionismoa eta arte kontzeptuala, baita 90eko hamarkadan Los Angelesen nabarmendu ziren artisten lanak ere. Ikusi ahal izango ditugun artelan emblematikoetako batzuk Jasper Johns, Andy Warhol, Cy Twombly, Roy Lichtenstein, Jeff Koons, Cindy Sherman edo Charles Rayrenak dira. Horrez gain, 80ko hamarkadako artea jarriko da ikusgai? Broad bildumagileek arreta berezia jarri duten hamarkada da, oparoaldi ekonomiko handia izan zuen garaia eta, aldi berean, artearen munduan bizitasun handikoa eta politizatua, gune nagusia New York izanik? betiere ikuspegi historiko batetik begiraturik, aldi horretako sorkuntza artistikoa justu aurreko eta ondorengo urteetako funtsezko piezek eta mugimenduen eskaintzen duten testuinguruan kokatzen baita, horiek ere erakusketan ikusi ahal izango ditugularik. *Pop Artean* inspiratuta, Jeff Koonsek sortutako obrek agerian uzten duten gai arrunten edo *kitschen* interpretazio erakargarritik hasita, Jean-Michel Basquiaten *graffitietatik* igaroz, Cindy Shermanen giro bereziko argazkietaraino, 80ko hamarkadako sorkuntza-lanek adierazten dituzten gaiak hauexek dira: gizarte-klasea, arraza, generoa eta marjinaltasuna; nagusitutako balore kulturalak edo artearen merkantilizazioa zalantzan jarritik. Azkenik, erakusketan artista aleman garaikideen lan ugari agertzen dira, horien artean Stephan Balkenholek azkenaldian egindako zurezko

eskulturak eta Anselm Kieferrek baliabide anitzak nahastuz egindako mihiseak, eta lan horiek agerian uzten dute Iparramerikako artearen panoraman eragin handia izan zuten nazioarteko mugimendu artistikoei eskainitako gero eta arreta handiagoa.

## ALDI BATERAKO ERAKUSKETA



### FITXA TEKNIKOA

Izenburua: *Alexander Calder*  
Komisarioak: Carmen Giménez eta Alexander S. C. Rower  
Egoitzak: Guggenheim Bilbao Museoa; Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía  
Datak: martxoaren 18a-urriaren 7a  
Aretoak: 102, 201, 202, 203, 204, 205, 206, 207, 208, 209

### ERAKUSKETAREN EDUKIA

“Arteak zergatik izan behar du estatikoa? Lan abstraktu bat begiratzean, eskultura edo pintura izan arren, plano, esfera eta nukleoz osatutako multzo bat ikusten dugu, inolako zentzurik ez duena. Ezin hobea izango litzateke baina beti mugiezina da. Eskulturan mugimendua da hurrengo pausua”.

Alexander Calder, 1932

Bere ibilbidean zehar, artearen ahaltasun zinetikoa izan zen Alexander Calderren interes nagusia. Abstrakzioaren hizkuntza erabiliz mugimendua egitura jakin batzuetan jaso zuen, eta haiekin eskulturaren inguruko ideiei erronka eginez alternatiba erradikalak eskaini zituen, xx. mendeko historiaren artean izugarriko eragina izan zutenak. Bigarren solairuko aretoetan kokatutako Alexander Calderren erakusketa honek artistaren ikuspegi berezia aditzera ematen du 65 eskultura baino gehiagoren bidez, forma abstraktua lantzen eman zituen bost hamarkadetan sortutako lanak izanik. Erakusketak agerian uzten du Calderren nahia, alegia bizitza iradokiko lukeen arte-mota bat sortzekoa, kontuan izanik nahi horrek etengabeko kezka sorrarazi ziola grabitate-indarraren, airearen zirkulazioaren eta hausaren eskuhartzearen inguruan.

Filadelfian jaioa, Calder bi artisten semea zen eta jaso zuen prestakuntza ingeniari-tza mekanikoa izan arren, artearen aurrean erakutsi zuen zaletasuna nagusitu zen. 1923an New Yorkeko Art Students League-n sartu zen. 1925ean, *National Police Gazette*-k zirkuko ikuskizun baterako ilustrazioak egiteko eskaria egin zion, eta zeregin horrek gai horren inguruko interesa piztu zuen artistarengan. Izan ere, *Calder Zirkua* horren guztiaren emaitza izan zen. *Performance* hura Parisen estreinatu zen 1926an, artista hiri horretara bizitzera joan ondoren. Bertan ezagutu zituen Parisko abangoardiaren kideetako batzuk, haien artean Le Corbusier, Fernand Léger, Joan Miró Piet Mondrian eta Theo van Doesburg. Calderrek bere estetika aldatu egin zuen Mondrianen estudioa ezagutu zuenean, 1930eko udazkenean. Harrez geroztik, erabat abstraktua zen hizkuntza erabiltzen hasi zen eskulturak sortzeko. 1931n, Abstraction-Création taldean sartu zen. Urte hartan bertan, mugikorrek ziren zati independenteez osatutako eskulturak eraikitzen hasi zen. Marcel Duchampek “mobiles” (“mugikariak”) izenez bataiatu zituen lan haiek. Gaur egun erabat onartuta dagoen arte-forma bihurtu den arren, garai hartan Calderren mugikariak lorpen abangoardista handitzat jo zituzten, aurreko eskulturen forma estatikoei guztiz kontrajarrita agertu baitziren.



Arp izan zen 1932an "stabile" terminoa barneratu zuena Calderren motorrik gabeko lehenengo unibertso mugiezinak adierazteko. Piezak mugiezinak izan arren, *stabileren* hiru dimentsioko forma dinamikoak dagokion ahaltasun zinetikoa iradokitzen digu eta ikuslearen mugimendu fisikoa eskatzen du, obraren inguruan ibili behar baitu behatu ahal izateko. Calderrek 1942-43 urte bitartean sortu zituen "konstelazioak", gerraren ondorioz metal gutxi zegoen garaian eginak. Izan ere, eskuz landutako zurezko formak altzairuzko hagatxo finkoen muturretara elkartuz sortu zituen. 1951n, Calderrek mugikari/*stabile* konbinazio berria asmatu zuen, egiturari dagokionez bere konstelazioekin lotura izanik. "Dorreak" izenekoak ditugu lan horiek, hormari iltze batez eusten direnak eta hagatxoaren egitura batez eta paretatik bertatik sortu direla ematen duten alantze hanka antzeko batzuek osatuak, beren egituretatik objektu mugikorrek erantsita dituztela. Garai hartan, soinua, 1932an geroztik Calderren prozesuan agertu ohi dena, bere ikerlanen kezka nagusi bihurtu zen. 1948. urte inguruan Calder "gong" delakoak sortzen hasi zen. Calderren "gongek" kolpekari bat eta soinu egiten duen eta esekita dagoen plater bat barne hartzen dituzte, eta piezen ustekabeko mugimenduek eraginda soinu harrigarriak sorrarazten dituzte. 50eko hamarkadatik aurrera, Calder gero eta obra handiagoak sortzen hasi zen, neurri batean aire zabalerako edo atrio handietarako eskulturak egiteko eskatu ohi ziotelako sarritan.

Bere eskultura abstraktuek bizitasun berezia dute, mundu naturaletik sortutakoa, eta betiere erakargarri izaten jarraitzen dute ikuslearentzat. Frank Gehryk diseinatutako Guggenheim Bilbao Museoaren gaur egungo egituraren testuinguruan aurkeztuta, *Alexander Calder* erakusketak eskultoreak sortutako forma organikoak ingurune berritzaile eta dinamiko batean berriro aztertzeke aukera ematen dio ikusleari. 1964an Frank Lloyd Wrighten New Yorkeko eraikin enblematikoan eskaini zitzaion atzera begirako erakusketatik inoiz ez da halako uztartzerik izan artearen eta arkitekturaren artean.